

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostiarrek 100 proiektu baino gehiagoren artean bozkatu ahal izango dute, 2026 eta 2027ko aurrekontuetan sartzeko

Guztira 978 proposamen aurkeztu ziren 2025eko Partaidetzazko Aurrekontuen prozesuan; horietatik 634 azterketa-fasera pasa dira, eta 123 bozketa-fasera

Donostiarrek 2025eko Partaidetzazko Aurrekontuen prozesuaren bozketa-fasera igaro diren 123 proposamenen artean aukeratu ahal izango dute, urriaren 13tik 26ra bitartean. Hala, herritarrek lehentasuna eman ahal izango diete 2026an eta 2027an helburu horretarako erabiliko diren 3 milioi euroak (1,5 milioi ekitaldi bakoitzeko) banatzeko proiektuei. Zenbateko horri 500.000 euro gehitu behar zaizkio, Ekialdeko Barrutiak 2026ko aurrekontutik prozesu honetatik ateratzen diren barrutiko auzoetako proiektuetarako erabiliko dituenak.

Gizarte Ekintza, Ekintza Komunitario eta Auzoetako zinegotzi Mariaje Idoetak gogorarazi duenez, "prozesu hau herritarrek aurrekontuei buruzko erabakietan zuzenean eta aktiboki parte hartzeko duten tresna garrantzitsua da, beraien auzoetarako edo hiri osorako proiektuak proposatuz eta bultzatuz".

Idoetak azaldu duenez, "urtez urte ikusten ari gara, proposamen gutxiago jaso arren, proposamen horien kalitatea askoz ere handiagoa dela, herritarrek ulertu baitute prozesuaren helburua eta zentzua. Horregatik, hiriko kaleetan prozesu honi esker bultzatu diren hainbat hobekuntza ikus ditzakegu, hala nola bidegorriak hobetzea, jolaserako eta kirolerako guneak egokitzea edo argiztapena edo beste zerbitzu batzuk hobetzea".

Bozketa-fasera iritsi diren proposamenek partaidetza-prozesuaren hasierako faseetan egindako baheketak gainditu dituzte, non 966 proposamen jaso ziren. Horietatik, antzekoak zirenak multzokatu dira, eta beste batzuk hainbat arrazoiengatik baztertu dira, hala nola proposamenik ez adierazteagatik, bikoiztuta egoteagatik, , etorkizuneko aurrekontuei eragiten dietelako edo dagoeneko kontratatuta dauden zerbitzuen aurrekontuetan sartu ezin direlako.

634 proposamen aztertu dira

Aurkeztu ziren eta joan den apirilean azterketa-fasera pasa ziren 634 proposamenetatik, 92 hiri osorako egin ziren, eta 542 auzoetako proiektuetarako, eta Altza (82), Aiete (79) edo Egia (50) izan ziren proposamen gehien jaso zituztenak.

Proposamen horietako bakoitza dagokion departamentura bideratu zen, azter zezan. Prozesu horretan 16 departamentu eta 90 udal-langile baino gehiago inplikatu dira. Proposamen gehien jaso dituen arloa Hiri Mantentze eta Zerbitzuak (223) izan da, eta ondoren Mugikortasun Saila (222).

Prentsa oharra

Nota de prensa

123 proposamen finalista

Departamentuen azterketaren ondoren, 123 proposamen urriaren 13tik aurrera egingo den bozketa-fasera igaroko dira. Horietatik, 15 hirirako dira, eta gainerako 108 auzoetarako dira. Horiek, iriko auzo ezberdinen artean banatzen dira, Altza (13), Aiete (11), Egia (14) edo Bidebieta (9) auzoen artean, hain zuzen ere.

Ekialdeko Barrutiak 36 proposamen batu ditu guztira, eta horien artean Barrutiko 2026ko berezko aurrekontuko 500.000 euro banatuko dira. 2026ko eta 2027ko aurrekontuetarako gainerako 3 milioi euroak beste 87 proposamenen artean esleituko dira, bozketa-fasearen ondoriozko lehentasunaren arabera, aurrekontua agortu arte.

Proposamen horiek guztiek interes publikokoak eta udal-eskumenekoak izateko baldintzak betetzen dituzte, ez dituzte 400.000 euroko inbertsioa gainditzen, eta ekitaldi bakar batean gauza daitezke, ondorengo aurrekontuetan eraginik izan gabe.

Proposamenen bozketa

Proposamenak bozkatzeko fasea urriaren 16an hasiko da eta hilaren 26ra arte zabalik egongo da. Proposamen bakoitzari bozketa kode bat esleituko zaio, eta herritarrek boz proiektu aukeratu beharko dituzte (pertsona bakoitzak behin bakarrik bozkatu ahal izango du).

Bozketan parte hartzeko baldintzak honako hauek izango dira:

- Pertsona fisikoa izatea.
- 16 urtetik gorakoa izatea bozketaren unean.
- Donostian erroldatuta egotea.

Parte hartzeko bi bide egongo dira:

- **Online**, www.donostia.eus webgunean horretarako sortutako atalaren bidez (unibertsala, irigarria, anonimoa eta sekretua izango da). Hauek dira online botoa emateko behar diren datuak: NAN edo AIZ zenbakia, izen-abizenak, jaioteguna eta telefono mugikorraren zenbakia.
- **Aurrez aurre**, Herritarren Partaidetzarako bulegoan (Easo kalea 43, 1. eskuina). NANA aurkeztu beharko da.

Urriaren 27tik aurrera, herritarren botoen emaitzen arabera, lehenetsitako proposamenen zerrenda egingo da, boto gehien jaso dituenetik boto gutxien jaso dituenera.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Aurrekontuan sartuko diren proposamenak programa horretara bideratutako zenbatekoaren arabera zehaztuko dira. Horiek Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren webgunean kontsultatu ahal izango dira, eta bertan proiektuen egoeraren jarraipena egin ahal izango da proiektua erabat gauzatu arte.

Donostia, 2025eko irailaren 29a